

## **BORTXAZKO LANGILEEN LO-TOKI EDO ZULOAK**


Sorotxo deituriko gunean aurkitzen zara. Panel seinalagarriaren atzean dagoen eremuan sartzera ausartzen bazara, alde batetik, Jaizkibelgo gailurrera doan bidea eskuinetara eta Eguzkitza baserriko errepidea ezkerretara utzi, eta egun oraindik kontserbatzen diren 86 zulo inguru ikusi ahal izango dituzu. Lurrean zulatutako neurri ezberdinetakoak dira, Gehienak 2 eta 4 pertsona etzanik kabitzeko modukoak dira, baina badira handiagoak ere.

Gerra zibila bukatu eta gutxira, hau da, 1939ko uda bukaera eta udazken hasiera bitartean egin zituzten, bortxazko lanez baliatuz Jaizkibelgo errepidea eraikitzeko kontzentrazio eremu frankistetatik ekarritako preso errepublikarrek. Diktadurak deituriko *Langileen Batailoien* izen pean iritsi ziren Lezora, baina horietako batean egon zen Jose Barajasek horrela zioen: "Horiek ez ziren langileen batailoiak, esklaboak ginen, besterik ez!"


Gerra betean, ehunka Kontzentrazio-esparrutan pilatzen ziren presoek kopurua etengabe hazten ari zenean sortu zituen Diktadoreak Langileen Batailoiak. Bortxazko lanak eginez garaituen eskulana esplotatu asmoz sortutakoak eta aldi berean, etsai politikoak zigortzeko eta umiliatzeko baliatu zituen, indarkeria, gosea eta tratu iraingarria sistematikoki erabiliz. Eraikitako Jaizkibelgo errepide hau, egun ibilbide turistikotzat jotzen dugun arren, ez zen interes zibilekoa izan, hau da, mugaren beste aldetik inbasioa gertatuz gero Guadalupeko gotorlekuari laguntzeko balio behar zuen bide militarra baizik, eta Pirinioetako lerroa gotortzeko plan orokorrago baten parte zen.

Langileen lehen batailoia Lezora heldu zenean, agintari militarrek, zaintzako soldaduak eta presoek talde bat Lezoko herrigunean kokatu ziren. Baina herrigunean eta baserrietan ez zegoen hainbeste gatibuentzako lekurik. Hori dela eta, haize zabaleko kanpamendu bat sortu zuten, eta horrek Sorotxon lo egitera behartu zituen presoak, lan egin eta zigorrak pairatzen zituzten tokitik gertu, lurrean egindako zuloetan etzanda eta lor zezaketen estalki urriak erabiliz estaltzeko, hala nola, manta zaharrak, landaredia, egur zatiak edo obra hondakinak.

Azaroan Batailo berri bat ekarri zuten errepidean lan egiteko, eta preso guztiek izarpean lo egin behar izan zuten. Udazken hura bereziki hezea eta oso hotza izan zen. Bortxazko langile hauek, lanaldi fisiko nekagarri luzeen ondoren, ia arroparik gabe eta gosez eta elikagairik gabe, sarritan putzu-zulo hezeetan lo egin behar izaten zuten, eta elkarren ondoan pilatzen ziren lankideen beroari esker hotzetik babestu ahal izateko. Egoera horretan, asko gaixotu egin ziren eta larriki eraman behar izan zituzten ospitalera. Hala eta guztiz ere, baldintza gogor horiek hainbat hilabetez jasan behar izan zituzten. Azkenik, gaixotasun ugari sortutako bajen ondorioz, eta negu betean jada, aginte militarrek Iparragirreko kanpamendua eraiki zezaten agindu zuten. Kanpamendu honen hondakinek gaur arte iraun dute, eta Sorotxotik zuzenean sar daiteke bertara, presoek beraiek eraikitako eskailera baten bidez, panel seinaleetan adierazten den bezala.



**Aurkitutako aztarnak / Materiales encontrados**



**Jaizkibel - Lezo Barrakoiak eta Sorotxo "Lo-Zuloak"**